



EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK, 2025ko LEHENENGO SEIHILEKOAN BILTZARRAK ANTOLATZEKO

Eskaerak aurkezteko barne epea 2024ko abenduaren 18ra arte egongo da zabalik.

Helburua

2025ko **lehenengo seihilekoan** Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa biltzarrak eta bilkurak antolatzeko laguntzaren deialdia egitea. Kongresu eta bilerak **2025ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era** bitartean egin beharko dira.

Eskaerak aurkeztea:

Aplikazioaren bidez telematikoki eskuratu ahal izango den formularioaren bidez bete beharko dira: [ESTEKA](#)

Eskaera bete ondoren, **sinatuta bidali behar duzu UPV/EHUren adierazpena igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus** helbidera. Eskaera egiaztatu eta adierazpen hori jaso ondoren, UPV/EHUko legezko ordezkariak sinadura elektronikoa emango du. **Sinadura hori gabe eskaera ez da erregistratuta geratuko.**

Eskatutako dokumentazioa:

- Memoria**
- Eskatzen diren funtsen justifikazioa:** diru-sarrerekin batera eskatutako funtsek ez dituzte inoiz gastuak gainditu behar. Gastuak ken diru-sarrerak ez dira inoiz eskatutako laguntzaren herena baino handiagoak izango.
Plataforman eta plantillan adierazten diren kopuruek bat etorri behar dute (aplikazioan aurkituko duzu txantiloia)
- Laguntza eskatzen den ekitaldiaren antolaketa onartzen duen **Sail Kontseiluaren edo Batzordearen akta.**
- Parte hartzailek parte hartzea onartzen dutela egiaztatzea.** Eusko Jaurlaritzak emandako plantilla aurkeztu behar da, parte hartzaile bakoitzak beteta eta sinatuta, ahal dela digitalki. Ez bidali dokumentua eskaneatuta, ez da onartuko. Dokumentu bat parte hartzaile bakoitzeko.
- Erantzukizunpeko adierazpena.** 5.6.b artikuluan adierazitako laguntza eskatu edo eman dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da:
 - "Dirulaguntzen" kasuan, emandako zenbatekoa adierazten duen **ebazpena** aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, deialdira aurkeztutako **eskabidea**.
 - "Beste diru-sarrera batzuk" izanez gero, biltzarra kofinantzatzeko konpromisoa hartzen duen agenteak **sinatutako gutuna** aurkeztu behar da, emandako zenbatekoa adierazita.

OHAR GARRANTZITSUA:

Horrela, **DIRU-SARREREN** atala honela bete beharko litzateke:

- Inskripzio-kuotak: izen-emateagatiko diru-sarreraren aurreikuspena
- Emandako edo eskatutako dirulaguntzak.
- Beste diru-sarrera batzuk: babesak, dohaintzak...

Laguntza honek emandako zenbatekoaren **hirukoitza** den zenbateko bat justifikatzeko betebeharra dakar (**Eusko Jaurlaritzak biltzarrean zehar deialdian baimendutako kontzeptuetan eginiko gastuaren herena soilik ordaintzen du**). 2/3
kofinantzatzeko, ezingo da Eusko Jaurlaritzako ikertaldearen dirua erabili.

Beraz, emakidaren ondoren, kreditua erreserbatuta geldituko da. **Unibertsitatearen aurrekontuetan** beste finantziazio iturri batzuk erabilgarri badaudela egiaztatu ahala, pixkanaka



Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzari dagokion zenbatekoa ordaintzen joango da.

Erakundearen datuak:

Erakundearen (**UPV/EHU**) datu hauek behar dira eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa (Bizkaia)
- **Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Formularioan honako hau adierazi behar duzu:

Organo kudeatzaileari ematen diola zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuak 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bete izana egiaztatzeko baimena. **BAI**

Berdintasun-plan bat indarrean dauka, estatu-araudiaren arabera halakorik izatera behartuta badago. **BAI**

Estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasun esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri ditu, 50 langiletik gora izanez gero. **BAI**

Harremanetarako datuak:

UPV/EHU: Helbide elektronikoa: igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus	Eusko Jaurlaritza: 945 01 8 00
--	--